
Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko ekintzak

**Udalerrietan erreparazio-printzipioa
aplikatzeko gida didaktikoa**






/ Aurkibidea

S / Sarrera	/ 2
1 / Biktimei erreparazio printzipioa	/ 4
2 / Erreparazio printzipioak barne hartzen dituen neurriak	/ 9
3 / Kalteak erreparatzeko esku hartzea	/ 14
4 / Oinarrizko legedia	/ 24
5 / Estatuaren eta tokiko erakundeen betebeharrak erraparazioaren printzipioa aplikazioan	/ 28
6 / Tokiko esku hartzekoan erreparazio printzipioaren garapena lantzeko jarraibideak	/ 31
7 / Udalen jardunbide egokiak	/ 35
8 / Lanako fitxak	/ 39

/ EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarateak, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen babes instituzionalarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeriaren biktimen egoera hobetzeko hartu duen konpromisoa betetze aldera, Gida hau argitaratu du Udal, Kuadrillak eta Mankomunitateak zeregin honetarako baliabide teknikoak hornitzeko asmotan.

Argitalpen hau, Berdinsarea esparruaren barruan landu da. Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea da Berdinsarea; 2006. urtean sortu zen, eta gaur egun 69 udalerriz osatuta dago. Udalerrietako berdintasun-sail batzuekin eta Berdinsarearen barruan dauden udalerrien ordezkariekin lankidetzan egindako lan-prozesu luze baten ondoren, bi bertsiotan eman zaio forma gida honi: lehena erreparazio-printzipioaren oinarritzko alderdiak ulertzen laguntzen duen laburpen bat da, eta bigarrenak hemen lantzen diren aspektuak garatzen ditu.

Gida, indarkeria matxistaren biktima izan direnen erreparazio printzipioa garatzen oinarritzen da, hau, giza eskubideen urraketa bezala ulertzen delarik. Honenbestez, estatuaren erakundeek betebeharra da beraien eskumen maila desberdinetan, biktimen errehabilitazioa, gogobetetzea, kalte ordainak eta indarkeria honen errepikapena eman ez dadin bermatzeko lan egitea.



Erreparazio printzipioak, indarkeria matxistaren biktimen eskubideak arreta prozesuaren erdigunean jartzea suposatzen du, hauen beharrian eta eskaerak entzutea eta ulertzea. Indarkeria honen biktimak izan direnak, delitu baten biktima izan direla ulertzen dugu eta honen ikerketa eta pertsekuzioa erakunde zehatzei dagokiela. Hala ere, udalerrietatik justizia zabalkunde prozesu honetan, biktimen erreparaziorako jarduketak modu paraleloan jarri daitezke martxan.

Gida hau egiteko, indarkeria matxistari dagokion Europa, estatu eta maila autonomikoko arau- esparrua hartu dira kontuan. Era berean, feminismitik erreparazio printzipioaren aplikaziora bideratutako ekarpenak, eta euskal udaletxe udal batzuetatik orain dela urte batzuk martxan jarritako ekimenak barne hartu dira.

Bertsio murriztu honetan, biktimen erreparazio-printzipioa garatzen da, eta tokiko eremuetatik egin daitezkeen ekintzen adibideak eskaintzen dira.

Aldi berean, Sareko udalerrri batzuetan praktikan jartzen dabiltzan eta aitzindariak diren jardunbide egoki batzuk batzen dira. Halaber, erreparaziorako udal-politiken diagnostikoa eta jarraipena egiteko asmotan egin ziren lan-fitxak batzen dira.

1/

/ Biktimei erreparazio printzipioa




/ Emakumeen aurkako indarkeria matxista, Giza Eskubideen urraketa eta emakumeen kontrako diskriminazioa da.

Honela adierazten du, **HITZARMENA, EUROPAKO KONTSEILUARENA, EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIARI ETA ETXEKO INDARKERIARI AURREA HARTZEKO ETA HAIEN KONTRA BORROKATZEKO EGINDAKOA**, 2011ko maiatzaren 11an Istanbulen onartua eta 2014ko ekainaren 6an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, non beste alderdi batzuen artean indarkeria honen egiturazko izaera azpimarratzen den:

*Reconociendo que la violencia contra la mujer es una manifestación de **desequilibrio histórico** entre la mujer y el hombre que ha llevado a la dominación y a la discriminación de la mujer por el hombre, privando así a la mujer de su plena emancipación;*

*Reconociendo que la naturaleza estructural de la violencia contra la mujer está **basada en el género**, y que la violencia contra la mujer es uno de los mecanismos sociales cruciales por los que se mantiene a las mujeres en una posición de subordinación con respecto a los hombres;*

Giza Eskubideen urraketen biktima guztiak erreparaziorako eskubidea dute; alabaina, indarkeria matxistaren biktimak ez dira beste indarkeria batzuen biktimak bezala aintzakotzat hartuak izan. Ondorioz, haiek erabat berreskuratzea bermatzeko eskuragarri jartzen zaizkien baliabideek ez



Eskema 1

dituzte beti lortzen erreparazio-helburua betetzea. Duela gutxi arte ez diete eskatu mugimendu feministek erakunde publikoei materia honetarako dituzten politika publikoak berrikusteko, Istanbulko Hitzarmenean ezarritakora egokitzeke.

Erreparazio printzipioan murgiltzeko, nor eta zergatik den indarkeria matxistaren biktima, indarkeriak dituen formak eta indarkeria honetan kontuan izan behar diren esparruak ulertzea oinarrizko alderdiak dira.

Erreparazio-Printzipioa DA:


Indarkeria matxistari biziraule diren emakumeek, biktima izateagatik, **eskubidea** dute erakunde publikoen eskumen maila guztietan babes eta arreta integrala jasotzeko. Hurrengoak barne hartzen ditu gutxienez:

a/ Kalte- ordaina, arrazoizko epe baten barruan ekonomikoki ebaluagarriak diren kate eta galeretan oinarritua.

b/ Egiaren aitortpena edo gogobetetzea, indarkeria ukatzen duten ekintza publikoak eta emakume bizirauleei eta beraien ahotsari aitortpena ematea.

c/ Berrito ez Gertatzeko Bermea, arreta kaltea eragin duenarengan jartzea.

1/ Biktimei erreparazio printzipioa



Eskema 2

d/ Erabateko berreskurapena edo errehabilitazioa dagokion arreta errekurtsu publikoen bitartez eskaintzea.

Emakume bizirauleentzako erreparazio printzipioak, hurrengoak ONARTZEA dakar:

- Biktima izatea eskubide urratu batetik dator. Maila guztietan, berehalako eta zuzeneko forman kalteak eragiten dituen eta eskubideen urraketa hori jasan duenarengan ondorioak uzten ditu.
- Biktima izatea ezin daiteke erlazionatu erantzun, portaera, jarrera edota elkar erlazio eta portaera jarraibideekin. Hau da, biktima batek ez ditu eraso baten aurrean izandako erantzunak justifikatu behar, bere erantzunek ez baitute biktima bihurtzen. Arreta, eraso jasatean jarri behar da, eta biktimaren erantzunak normala ez den egoera batean ematen diren bizirauteko mekanismo erantzun normalak direla onartu behar da.
- Indarkeria-egoera kroniko batean murgildua egoteak edo izaera sexual edo sexistako eraso bat jasateak ez dakar berekin portaera jakin bat garatzea. Hots, ez dago biktima nor den edota biktimak nola jokatu behar duen zehazten duen profirik.

INDARKERIA

SEXUALA

INDARKERIA

FISIKOA

INGURUNEO

INDARKERIA

LAN-ARLOA

HEZKUNTZA-
ARLOAARLO
SOZIALAKIROL
ARLOABALIABIDE
PUBLIKOAKOSASUN-
ARLOAJAI-GIROKO
AISIAGUNEAKINGURUNE
BIRTUALA

• Ekintza edo ekintza batzuen edota indarkeria istorio baten aurrean eman daitezkeen norbanakoaren erantzunak faktore anitzez markatua dator. Hauen artean, biktimaren historiaren ezaugarriek, indarkeriak hartu duen modua denboran eta forman, eta ingurukoek edota jendarteak bere osotasunean indarkeria horri emandako erantzunak baldintzatzen dute.

• Indarkeriaren aurrean emandako erantzunak, direnak direla, aukera ematen diete indarkeriari aurre egiten dabiltzan emakumeei bizirik irauteko. Alde horretatik, funtsezkoa da haien biziraule-izaera aitortzea. Bizirik irautea eta biktima izatea ez dira modu uniboko edo sekuentzialean gertatzen diren egoerak; biktimizatzen duen eraso baten aurrean, integritate fisiko eta psikologikoa babesten dituzten mekanismoak aktibatzen direlako dira indarkeria matxistaren bizirauleak, baina biktimizazio horrek, beste ondorio batzuen artean, ahuldu egiten ditu bizirik irauteko estrategia horiek. (Ikus Eskema 1)

Erreparazio printzipioa APLIKATU beharra dago:

Indarkeria matxistari edozein formetan eta bizitzako edozein esparrutan biziraule diren emakumeei

Orokorrean indarkeria matxista bere manifestazio batekin (fisikoa) edo esparru jakin batekin (bikote heterosexualak) erratzen den testuinguru

1/ Biktimei erreparazio printzipioa

batean, garrantzitsu bilakatzen da indarkeria horren adierazpen forma desberdinak edota esparru desberdinak azpimarratzea.

Era berean nabarmendu beharra dago forma eta esparru guztiek ez dituztela balio sozial berberak eta aldi berean, ez daude guztiak lege mailan modu berdinean adieraziak.

Honela, indarkeria historia edota gertakizun zehatzek honen forma eta esparruak elkar lotzera behartzen du, biktimen erreparazioa bermatuko duen esku hartze egokiena diseinatzeko. Ekintza horretarako garrantzitsua da hurrengo eskemak argi izatea.

Laburbilduz

Erreparazio-printzipioak esan nahi du emakume bizirauleei arreta ematen dieten zerbitzu publikoek ekintzak bideratzea maila guztietan jasandako kalteak arintzeko; esan nahi du, halaber, indarkeriak emakumeengan utzitako ondorioei arreta jarriko zaiela bermatzea, eta neurriak hartzea emakumeen eskubideak urratzea ekarri dituzten egoerak berriro ez errepikatzeko.

2/

/ Erreparazio printzipioak barne hartzen dituen neurriak

/ Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusiarena, 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 4koa. "Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekurtsoak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak" erreparazioaren markoan begietsi behar diren bost neurri orokorrak adierazten ditu, bakoitzak berauek betetzeko ekintzak adierazten dituelarik.

1/ Leheneratzea

2/ Kalte-ordaina

3/ Errehabilitazioa

4/ Gogobetetzea

5/ Berrito ez gertatzeko bermeak

Nola lekualdatzen dira indarkeria matxistaren biktima- bizirauleen erreparazio neurriak prebentzio eta arrera politika publikoetara?

Aurretiaz adierazi bezala, ikuspuntu honetatik abiatutako politika publiko gutxi diseinatu dira, baina, aurreko urteetan hala berdintasun-sailetan nola udal, aldundi eta erkidego mailako gizarte-zerbitzuetan izandako esperientziari erreparatuz, ekintza hauek proposatzen dira.

EKINTZAK

1/ LEHENERATZEA

Ahal dela, giza eskubideen

nazioarteko arauen ageriko

urratzea edo nazioarteko zuzenbide

humanitarioaren urratze larria egin

aurreko egoerara itzuli behar da

biktima..

1/ Leheneratzea

Ikuspuntu feministatik, ulertzen da pertsonen arteko indarkeria-adierazpenak iceberg-aren punta direla eta indarkeria egiturazko eta sinboliko batek eusten diela. Hau da, gizonek eskubidetzat hartzen dituzte patriarkatuak ezarri dizkien pribilegio faltsuak, eta, horretaz gain, eraso zehatz bakoitzaren atzean kalte egiteko nahia dago. Beraz, emakumeekin erlazionatzeko bide hori aukeratzen dutenen erantzukizun indibiduala ere badago.

Alde horretatik, leheneratzea kontzeptuaren definiziorik zorrotziena (emakumea eskubideak urratu aurreko egoerara itzultzea) ez da kasu honetarako aplikagarria, ezta desiragarria ere. Biktimen bizitzen zenbait esparrutan leheneratzea gerta daiteke, baina indarkeriaren ondorioek, berekin dakartzaten bizitza-aldaketa eta aldaketa jakinez gainera, ezinezkoa egiten dute biktimak aurretiaz zuen egoerara bueltatzea, eta gainera, ikuspuntu feministaren helburua indarkeriaren egiturazko oinarria eraldatzea da.

Hau lortzeko, berdintasun sail eta zerbitzuak garatzen dituzten prebentzioaren inguruko tokiko politikak, orokorrean, epe ertain edo luzekoak dira. Honela, indarkeriaren egitura eta sinboloak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna mantentzen duten egitura eta sinbolora eraldatzeko.

2/ KALTE-ORDAINA

Kalte-ordaina modu egokian eta urratzearen
larritasunarekiko eta kasuan kasuko
inguruabarrekiko proportzioan eman behar
da, giza eskubideen nazioarteko arauen
ageriko urratzeen edo nazioarteko zuzenbide
humanitarioaren urratze larrien ondorio
diren galera ekonomikoki ebaluagarri guztiak
kontuan hartuta

Gainontzeko neurrietan, burutu daitezkeen ekintza zehatz batzuk:

2/ Kalte-ordaina

- Kalte fisiko edo mentala
- Aukeren galera (enpleguari, hezkuntzari eta gizarte-prestazioei dagokienez)
- Kalte materialak eta diru-sarreraren galera
- Kalte moralak
- Hauen gastuak:
 - Laguntza juridikoa
 - Medikamentuak
 - Zerbitzu medikoak
 - Zerbitzu psikologiko eta sozialak

3/ Errehabilitazioa

- Arreta sanitarioa eskuratu ahal izatea
- Ahalduntzea eta autonomia garatzen dituzten errekurtsioertarako sarbidea
- Arreta psikologikoa eta juridikoa eskuratu ahal izatea
- Beharrezko giza baliabideak, harrerazkoak eta ekonomikoak eskuratu ahal izatea
- Justizia eskuratu ahal izatea

2/ Erreparazio printzipioak barne hartzen dituen neurriak

3/ ERREHABILITAZIOA

Biktimak errehabilita
daitezten lortzeko
beharrezkoak diren neurri
guztiak hartu behar dira.

4/ GOGOBETETZEA

Biktimak gogobete
daitezten lortzeko
beharrezkoak diren neurri
guztiak hartu behar dira..

4/ Gogobetetzea

- Indarkeria interpersonal egoerek jarrai ez dezaten neurri eraginkorrak hartzea
- Gertaerak egiaztatzea eta egia jendaurrean eta osoki ezagutaraztea*
- Biktima- biziraule eta hari hertsiki loturiko pertsonen duintasuna, izena eta eskubideak berrezarriko dituen adierazpen ofizial bat egitea edo erabaki judizial bat hartzea.
- Oroipen, imenaldiak eta oroitzapen publikoak-bizirauleei, erailak izan diren emakumeei, beraien familia eta inguruari-ospakizunak
- Erresistentzia adierazitako hisotioen txertatzea meterial didaktikoetan
- Zehapen judizialak edo administratiboak aplikatzea erantzuleei
- Jendaurrean barkamena eskatzea, gertaerak aitortuta eta erantzukizunak onartuta.

**Baldin eta horrek kalte gehiago ez badakar eta biktimaren, haren familiakoen, lekukoek edo biktimari laguntzeko edo urratze gehiagorik ez gertatzeko esku hartu duten pertsonen segurtasuna eta interesak arriskuan jartzen ez baditu.*

5/ BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEAK

Gertatutakoa berriro gerta

ez dadin bermatzeko

beharrezkoak diren neurriak

hartu behar dira.

**ESTRATEGIA
INTEGRALA****5/ Berriro ez gertatzeko bermeak**

- Prozedura guztiek prozesuko bermeak eta ekitate-neurriak betetzea
- Botere Judizialaren indartzea eta independentzia
- Prozesuan parte hartzen duten profesionalak portaera-kodeak eta arau etikoak bete ditzaten sustatzea
- Emakumeenganako indarkeriaren kontrako legeen berrikusketa eta beharrezko erreformak
- Emakumeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko, zaintzeko eta konpontzeko mekanismoak sustatzea
- Gizarteko sektore guztiak balioen arloan hezteak.
- Erreparazio-prozesuan parte hartzen duten profesionalak babestea.

Aurretiaz adierazi bezala, erreparazio-printzipioak berekin dakar administrazio publikoaren maila guztietan zeharka lan egiteko estrategia integral bat aplikatzea. Udalerrri mailan udal-egitura guztiek indarkeria matxistaren prebentzio-politikak berdintasun-sailen eta gainontzeko sailen ekarpenetatik gauzatzeko. Ikuspuntu integral horrek barne hartzen du, orobat, biktimei ematen zaien arreta erreparazioaren perspektibatik berrikuste

3/

/ Kalteak erreparatzeko esku hartzea




/ Emakume bizirauleentzako arreta erreparatzaileak esan nahi du erasoek eragindako berehalako eta ez berehalako ondorioei arreta eskaintzea: osasunean, ekonomian, lan-esparruan, afektibitatean, justizia-eskubidean eta abarretan. Eta arreta-sistemak eta baliabideak behar dira indarkeria horren ondorioen jarraipena egiteko.

Dimentsio pertsonala duten ondorioak izan arren, badute dimentsio soziala ere. Izan ere, inongo biztanleriak ez du onartu behar beren herritar emakumeen eskubide-urraketa zigorrik gabe gelditzea. Horregatik, ezinbestekoa da herritar guztien parte-hartzea sustatzea biktimen gogobetetzea eta aintzatespena lortzeko.

Indarkeria matxistaren esparruan, emakume biktima, subjektu pasibo bezala ulertua izan da eta bere kabuz jarduteko gaitasun eskas edo nulua duen pertsona bezala. Definizio hau ez da Eskubidean oinarritzen edota babesten, baizik eta ikuspuntu patriarkal batean, zeinek emakumeak, jasandako indarkeriaren arduradun bihurtzen dituen eta erasoak emakumeen ezaugarriekin lotzen dituen, guztiak negatiboak direlarik.

Badira genero-indarkeria jasateko arrisku handiagoa, berau isilarazteko eta normalizatzeke aukera gehiago dituztenak edo zerbitzuak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten emakume **talde jakin batzuk**, eta egoera horiek kontuan hartu behar dira kalteak erreparatzeko prozesu osoan zehar.



Bestalde, **kalteak edo galerak** zerbait egitearen ondorioa izan daitezke, baina baita **ezer ez egitearen ondorioa** ere; biktimen edo biktima posibleen eskubideak behar adina ez zaintzeagatik sortutako edo areagotutako indarkeria-egoerak ere badira estatuen erantzukizuna.

Honengatik ezinbestekoa da biktima bizirauleak bere errekupeazio prozesuaren subjektu aktibo bezala aintzakotzat hartzea.

Indarkeria matxistaren biktima guztiak beraien **eskubideak bermatuak** dituzte, beraien jatorri, erlijio edota bestelako baldintza edo egoerari erreparatu gabe, egoera pertsonala eta soziala edozein izanda ere, Erakundeak horren arduradun baitira.

Erreparaziorako esku hartzea martxan jarri dadin ziurtatzeko, hurrengo aspektuak hartu behar dira kontuan:

/ Indarkeriak emakumeengan, seme- alabengan, familia eta bere inguruarengan duen eragina onartzea

/ Eskubideen ikuspegia

/ Erabateko erreparazio-arreta

/ Ahaldunduz eskubideak leheneratzea


/ Erreparazio sozial publikoa

INDARKERIAK	Garrantzitsua da emakumeak eta haien seme-alabak biktimatzat jotzea (legez dagoeneko halakotzat hartzen dira), baina baita beste senide batzuk, lan-inguruneko pertsonak, etab. ere, prozesuan zehar biktima bihurtu baitaitezke. Ez ditugu ahaztu behar gizarte-arauak ezarritakoa ez den beste sexu- edo genero-orientazio eta -identitate bat duten eta indarkeria matxista jasaten duten pertsonak.
EMAKUMEENGAN,	
SEME- ALABENGAN,	
FAMILIA ETA BERE	
INGURUARENGAN	
DUEN ERAGINA	
ONARTZEA	
ESKUBIDEEN	Biktima baliabideen hartzaile/erabiltzaile gisa ez ikustea, eta berak ere bere burua hala ez ikustea, baizik eta biktima bihurtu den eta eskubideak berreskuratu behar dituen emakume gisa.
IKUSPEGIA	
ERABATEKO	Ezinbestekoa da arreta-prozesu osoan kontuan hartzea erreparazioa dela helburua, zeharka lan eginez; arreta-protokoloek bost printzipioak hartu behar dituzte barnean esku hartzeko prozesu osoan zehar.
ERREPARAZIO-ARRETA	
AHALDUNDUZ	Administrazioek lana erraztu behar diete biziraule biktimen elkarteei eta biktimekin ildo horretatik lan egiten duten beste era batzuetako elkarteei, indarkeria eragin duen egoera desagerrarazteko gai izan daitezten.
ESKUBIDEAK	
LEHENERATZEA	
ERREPARAZIO SOZIAL	Egiaren printzipioa kontuan hartuta, administrazioek (besteak beste, udalerriek) ildo horretan lan egiteko eskumenak dituzte (adibidez, memorialak egiteko, kaleen izenak aldatzeko, etab.).
PUBLIKOA	



Erreparazio printzipioak, era berean, zerbitzu orokor eta espezializatuetan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta nolakoa den berrikustea suposatzen du. Esku hartze honek, aurretiaz adierazi den bezala, arretarako sistema publikoko sarbide puntuak zabaldu beharko lituzke; baita helburutzat, biktimek indarkeria egoerak eragindako berehalako ondorioak pairatzeari uztea, indarkeriak izandako inpaktu eta ondorioei arreta ematen hasteko. Eginkizun honetan, integritateak, indarkeria honek eragindako esparru guztiei arreta ematea esan nahi du: fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, soziala, lan arlokoa eta abar.

Esku hartze honek, emakume bakoitzaren ezaugarriak izan behar ditu oinarrian. Hau da, bere identitate eta egoera definitzen duten faktoreak izan behar dira kontuan, hurrengoak bilduz: Sexu/genero/sexualitate esleipena nola bizi duen, non bizi duen, zein den bere jatorria, zer motatako familia duen, ama den heinean bizi duen egoera, seme- alaben adina eta abar. Hots, ikuspuntu Interseksionala beharrezkoa da, biktimak adierazitako beharrian eta prioritateak modu egokian arreta eskaintzeko, baita aurre egiteko erabiltzen dituen estrategiak eta bere errebeldia mekanismoak eta indarkeriarenganako ukapena. Hau da, bizi izandako indarkeriari aurre egitea ahalbide dizkioten mekanismoak.



Diagnostiko integral honetatik, berriro biktima ez bihurtzea eta erruduntze ezaren printzipioan oinarriturik esku hartu behar da. Biktimarekin babes eta erresistentzia estrategia egokienak identifikatu behar dira, azken hauek indartzuz bere ahalduntze eta autonomia prozesua helburutzat izanik.

Erreparaziotik zein MAILETAN esku hartu daitezke?

HIRUTAN: INDIBIDUALEAN, KOLEKTIBOAN ETA PUBLIKOAN

Beste bi osagai gehi daitezke:


- **Maila kolektiboan:** Emakume biktimen / Emakume bizirauleen elkarteak
- **Maila publikoan:** Aitorpena, gogobetetzearen printzipioari lotuta

Zaintzuk dira erreparaziotik esku hartzeko oinarritzko espazioak?

1 / Esparruan bertan oinarrituz

1.1 / Soziala eta sinbolikoa: Erreparazio kolektiboa eta publikoa da. Erreparazio kolektibo eta publikoak biktimen dignitatea berrezartzea bilatzen du, beraien eskubideen urraketa aitortzea eta ez dadila ahantzi.

1.2 / Ekonomika/ondarezkua: biltzen ditu:
· Erasotzaileak kalte-ordain ekonomikoa ematea



- Gizarte-laguntza ekonomikoak eskuratzea.

1.3 / Judiziala: hurrengo bilatzen du:

- Prozesu osoan biktimari entzutea, eta haren interesak ulertzea eta errespetatzea.
- Haren segurtasuna, ongizatea eta duintasuna lehenestea.
- Zigortutako erasotzailea egitea gertatutakoaren erantzule, eta kaltea erreparatzea; prozesuaren helburua ez da justiziak dioena betetzea soilik, baizik eta biktimarekin konplitu ere egin behar da.
- Epailearen babes eraginkorra bermatu (Konstituzioaren 24. Art.), hau da, Justiziaren efektua baliabide posible minimoarekin eta denbora posible txikienean lortzea.

2 / Biktimak jasan duen indarkeria mota aintzat hartuz:

2.1 / Indarkeria sexualen biktimekin. Premiazkoa da:

- Erabateko asistentzia eta informazioa
- Osasun aktuazioa, biktimaren intimitatea eta nahia errespetatuz.
- Esparruetan aktuazioak:
 - Polizialean
 - Justizia administrazioan.

Jardunbide Egoki bat 24 orduko Atentzio Zentroak eratzea da, biktimei modu integralean laguntza ematen dietena (sanitarioa, poliziala, judiziala, psikologikoa...).

2.3 / Jazarpen sexual edota sexuaren araberako jazarpenen biktimenzako

esparruan, behar da:

- Kasu bietarako aktuzio protokolo baten onarpena, neurri prebentiboak, esku hartzekoak eta jazarlearentzako santzioa eta biktimaren berreskuratzea biltzen dituena.
- Gaiaren inguruko sentsibilizazio eta informazioa, langileentzako orokorrean eta zehatzago protokoloa betetzeaz, eta baita biktimak beharrezkoa duen esparru guztietan arreta emateko aukeratuak izan diren arduradunei bideratua.
- Entitate publiko eta pribatu guztian jazarlearen eta biktimaren figura eta jazarpenaren dinamika bere adiera desberdinetan ezagutzera ematea, lan inguruan biktima ez erruduntzea bermatzeko.
- Justiziarako sarbide arina bermatzea biktimak horrela nahi izatekotan, bere nahiak errespetatuz, enpresa edota/erakundeak izan ditzakeen interesak baldintzatu gabe.

2.4 / Emakumeen salerosketaren biktima izan diren emakumeekin.

Zaugarritasun maila altuan dauden emakumeak dira (beraien jatorrizko herrialdeetatik urrun aurki daitezkelako, bizik irauteko baliabide alternatiborik gabe eta dokumentazio gabe egon daitezkelako). Beraien erasotzailetatik askatuak direnean arreta plan bat diseinatu behar da beraien lehentasun eta nahiak kontuan dituena, horretarako:

- Lehenik eta behin biktima bezala aintzakotzat hartu, ez egoera administratibo irregularran dauden pertsona balitz moduan.

- Beraien beharizan larrienei arreta eman, trataileen aldetik egon daitezkeen errepresalien aurrean babes poliziala barnean hartuz.

2.5 / Emakumeen mutilazio genitalen biktimekin (EMG) eta behartutako

ezkontza. Prebentziotik lan egitea garrantzitsua da, batez ere hurrengo profesionalak prestatuz:

- Osasuneko pertsonala
- Hezkuntza zentroak
- Gizarte Zerbitzuak

Erne egon daitezen eta gertatu aurretik kasuak detektatu ditzaketen.

- EMG-aren kasuan, neskek erritua ematen den adin tartera heltzen direnean eta beraien jatorriko lurraldeetara bidaiatzen dutenean.
- Behartutako ezkontzen kasuan, Estatuko legediak onartzen ez duen arren, hau ez da oztopoa burutzen dituzten pertsonen tradizioan baliodun ezkontzak izateko, kontuan izan behar da balio zibil gabekoak direla.

EMG-a jasan duten emakumeekin esku hartzea integrala izan behar da, erreparazio konpontzailea, arreta psikologikoa eta praktika balioztatzen duten duten familia inguruarekiko harremanak berregituratzea kontuan hartzen dituen.



Erreparazioaren jardunbide hildoak

2.6 / Biziraule diren beste biktima batzuekin:

- **Familia ingurua:** emakumeen erailketen kasuan, ezin bestekoa da familiarenganako eta umezurtz geratu diren adingabekoen arduradun geratu direnenganako babesa. Berebizikoa bihurtzen da udaletxeek familiei babes integrala aktibatzea.
- **Lan ingurua:** biktimaren lankideak ere biktimizatuak dira biktima erasotzaileari aurre egin edo berau babesteagatik. Kasu hauetan, hain beste ezagutzera ematen ez diren biktima hauentzako Udaletxeek dituzten baliabideak martxan jarri behar dituzte.
- **Eskola ingurua:**
 - Biktimak izan diren umeen klase kideek, egoera bizi eta bere egin behar dute. Eskolatik, ikasleen heldutasun mailaren arabera, modu ulergarri eta apropos batean azaldu behar zaie zein den egoera, egon daitezkeen ondorio posibleak eta abar.
 - Irakasleriak, laguntzaileak eta abar. biktima bezala aintzakotzat hartuak izan daitezke.

Hortaz, zeintzuk dira ERREPARAZIOAREN JARDUNBIDE HILDOAK?
(Ikus Eskema "Erreparazioaren jardunbide hildoak")

4/

/ Oinarrizko legedia

/ Indarkeria matxistaren biktima- biziraule erreparazio politikak eratzeko, derrigorrezko eredu da, Hitzarmena, Europako Kontseiluarena, Emakumearen Aurkako Indarkeriari eta Etxeko Indarkeriari Aurrea Hartzeko eta Haien Kontra Borrokatzeko Egindakoa (Istanbuleko Hitzarmena, 2011), 2014. urtean espainiar Estatuak berretsia.

Abenduaren 28ko 1/2044 Legen Organikoak, genero indarkeriaren biktimatzat aintzat hartzen ditu, bikotekideak edo bikotekide ohiarengandik erasotuak diren emakumeak nahiz eta elkarbizitarik ez izan. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ordea, emakumeen aurkako biolentzia emakume orok, emakume izateagatik jasandako eraso fisiko, psikologiko, sexual eta sinbolikoa barne hartzen ditu bai esparru publiko zein pribatuan. Lege estatalarekin alderatuz, lege autonomikoaren kontzeptualizazioak esparru eta forma zabalagoa barne hartzen ditu, Istanbuleko Hitzarmenarekin neurri handiagoan bat eginez.

Legedia desberdinen arteko koherentzia falta ezin daiteke oztopo izan erreparazio- printzipioa garatzeko eta aplikatzeko. Izan ere, termino juridikoaren baitan ematen diren muga eta kontraesanen gainetik, biktima eta biziraule diren emakumeen eta indarkeria matxistaren biktima oren interesak daude.

1/ Gidaren bertsio luzean, erreparazio politiken inguruko legedia guztia aurki daiteke eta emakumeen aurkako indarkeria forma desberdinerako jardunbideak aurkitzen dira.

Indarkeria matxistaren inguruan kontuan izan behar den oinarrizko legedia maila estatalean, erkidegokoan eta nazioartekoan hurrengoa da:

Nazioartekoa

/ NAHITAEZ BETE BEHARREKO ARAUDIA

- *Hitzarmena, Europako Kontseiluarena, emakumearen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeko eta haien kontra borrokatzeko egindakoa (Istanbul, 2011ko maiatza); 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako estatuak.*
- *Directrices 11492/13 de 24 de junio de 2013 para promover y proteger el disfrute de todos los derechos humanos por parte de las personas lesbianas, gays, bisexuales, transgénero e intersexuales (LGTBI).*
- *Directiva 2011/92/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de diciembre de 2011, relativa a la lucha contra los abusos sexuales y la explotación sexual de los menores y la pornografía infantil y por la que se sustituye la Decisión marco 2004/68/JAI del Consejo.*

/ GOMENDIOAK

- *Emakumeak diskriminatzeko edozein era saihesteko konbentzioa (CEDAW, 1979) 1983an berretsi zuen Espainiako estatuak.*
- *Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusia: Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimen errekurtsoak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipio eta jarraibideak. 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 4koa.*



Estatukoak

/ NAHITAEZ BETE BEHARREKO ARAUDIA

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.
- 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa.
- 1/2004 Legea, Genero-indarkeriaren aurka oso osoko babesaren emateko neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzeko.
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.

/ NAHITAEZ BETE BEHARREKO ARAUDIA

- 8/2015 Legea, uztailaren 22koa, haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena; legearen azken xedapenetako hirugarrenak 1/2004 Lege Organikoa aldatzen du, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesaren emateko neurriei buruzkoa.
- 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena.

EAE

/ NAHITAEZ BETE BEHARREKO ARAUDIA

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 3/2009 Legeak, abenduaren 23koak, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko
- 9/2019 Legea, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa

GOMENDIOAK

- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa, 2009.

5/

/ Estatuaren eta tokiko erakundeen betebeharrak erraparazioaren printzipioa aplikazioan

/ Tokiko politiketan erreparazio- printzipioa bermatzeko BETE-BEHARREKO helburuak hurrengoak dira:

BIKTIMA- BIZIRULEAK, BERRESKURATZE ETA ERREPARAZIO PROSEZUAN LAGUNTzea, BERAIEK GAITASUN ETA AUKERATZEKO AHALAMENA INDARTZEa, BIKTIMA- BIZIRAULENTZAKO AHALDUNTZE PERTSONALERAKO NEURRIAK GARATUZ

GERTAKIZUENEN ERREPIKAPENA EKIDITEKO PREBENTZIO POLITIKAK SORTUZ ETA MARTXAN JARRIZ

Estatuak eta bere eskumen-mailako Administrazio guztiak indarkeria matxistaren biktima- biziraule izan direnen eskubide guztiak bermatzeko BETEBEHARRA dute, Giza Eskubideen urraketa jasan duten biktima diren bezala, honek, hurrengo suposatzen duelarik:

- **Klase politikoaren konpromezu** zehatz eta neurgarria erlazonatutakoak dauden eta baietsi diren legediaren betetzea bermatzeko. Hauekin bat datozen arreta eta prebentzio politikak lantzeko eta ikuspuntu hau martxan jartzea posible egiteko aurrekontuak eskaintzeko.



• **Koordinazio eta informazioa partekatzeko espazioak sortzea** elkar lanean diharduten agente guztiekin (Epailletza, Segurtasun Indar eta Kidegoa, gizarte zerbitzuak, Osakidetza, Emakumeen Etxeak, tokiko Kolektibo feministak, emakumeen arretarako Zentro/Elkarteak, abokatutza, osasun, psikologia profesionalak, etb.) esku hartze koherentea eta erakundeen berriro biktima bihurtzea ekiditea bermatzen duena.

• Arretan, prebentzioan eta biktimen berreskuratzean esku hartzen duten profesionalekin **ikuspuntu feminista duen formazio zehatza bermatzea.**

Indarkeria matxistaren inguruko tokiko politikek, klase politikoaren konpromezuak zehaztu eta martxan jarriko diren politikeetan inplikaturako oinarrizko esparruen konpetentziak zehaztu behar dituzte.

Berdintasun sail edo zerbitzuak, tokiko Plenoetan balioetsitako neurriak bai eta hauetan esku hartzen duten agente desberdinen arteko koordinazioa sustatzearen **arduradun** dira.

Erakunde eskuduna izan beharko da erreparazio- printzipioa bermatzen duena, aurreko orrietan adierazitako erabateko erreparazioa lortzera bideratutako esku hartzea diseinatzeko beharrezkoak diren baliabideak erraztuz. Era paraleloan, prebentzio material oinarrizko tokiko politikak martxan jartzeko arduradunak dira, berriro ez gertatzea bermatzeko neurri bezala.

6/

/ Tokiko esku hartzekoan erreparazio printzipioaren garapena lantzeko jarraibideak

1/ BORONDATE INSTITUZIONAL PUBLIKOA	<ul style="list-style-type: none">• Prozesuaren arduradunak aukeratzea eta elkarren arteko koordinazio-moduak• Zer sail eta zerbitzuek esku hartuko duten finkatzea.• Inplikaturik dauden zerbitzu edo sailentzako behar beste baliabideak izatea.
2/ EGOERAREN DIAGNOSTIKOA EGITEA HAUEK AZTERTZEA	<ul style="list-style-type: none">• Udaleko politikari eta teknikariek eta zuzenean esku hartzen duten langileek zer prestakuntza-/sentsibilizazio-maila izan behar duten azaltzea: gizarte-zerbitzuak, polizia zerbitzuak, arreta psikologikoko (eta, hala badagokio, udal-zerbitzuak), arreta juridikokoak...• Udalerriko emakumeen elkarteak, alderdi hauei dagokienez:<ul style="list-style-type: none">· Biktimekin zuzenean lan egitean nola joka litekeen· Udal-sailekin zer komunikazio dagoen.
3/ EKINTZAK DISEINATZEA ETA MARTXAN JARTZEA	<ul style="list-style-type: none">• Udal-langileei (teknikariak eta politikariak) eta biktimekin zuzenean lan egiten dutenei (profesionalak eta elkarteetako kideak) prestakuntza ematea• Koordinazio-figurak/-mahaiak ezartzea, bai udal artekoak, bai udal barrukoak (batez ere, biktimei era batera edo bestera laguntzen dieten udalez gaindiko erakundeekin eta emakumeen elkarteekin)
4/ SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none">• Hobetzeko iradokizunak• Zainketa-sistemak eta programen monitoretza diseinatzea.

Zer EGIN BEHAR DA udaletxeetatik Erreparazioaren printzipio desberdinak aplikatzeko?



Udaletxeko esparru bakoitzetik zein EKINTZA KONKRETU burutu daitezke?

Adibide orientagarriak

EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta sanitarioa eskuratzen laguntzea.
INTEGRITATEA	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta psikologikoa eskuratzen laguntzea.
BABESTERA	<ul style="list-style-type: none"> • Erreparazio- printzipioa bermatuko duten esparru honi buruzko protokoloak eta ordenantzak idaztea eta onartzea.
ZUZENDUTAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimen beharrei erantzungo dieten harrera-baliabideak ahalik eta bizkorren tramitatu. • Erasotzaileei bideratutako sentsibilizazio/berreziketa programak ezartzea.
EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume biktimak bil daitezen sustatzea.
AHALDUNTZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ahalduntze-eskolak, Emakumeen etxeak, txoko feministak etb. sortzea,
ETA AUTONOMIA	<ul style="list-style-type: none"> • emakumeen autonomia ahalbidetzeko.
LORTZERA	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa ematea, laneko eskubideez baliatzeko, laguntza eta baliabide
ZUZENDUTAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • ekonomikoak eta etxebizitza eskuratzeko, etab.
SOZIALAK ETA SIMBOLIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hirigintzako ekintzak egitea (kaleen izenak, monumentuak, etab.), indarkeria matxistaren errealitatea ikusarazteko. • Egun jakin batzuetan jardunaldiak, ekintzak, etab. antolatzea, biktimak gogora ekartzeko. • Herritarrentzat sentsibilizazio-tailerrak egitea, ikuspegi feministatik lan egiteko; hau da, indarkeria matxistaren kontrako balioak abiapuntutzat hartuta. • Komunitatearekin (auzoa, eskola, etab.) egin beharreko esku-hartzeak programatzea, elkarbitzita leheneratzeko eta egia onartzeko.
EKONOMIKOAK ETA ONDAREZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria matxistaren biktimentzako ezohiko laguntza ekonomikoak ezartzea. • Biktimaren eta udalerriko enpresen artean bitarteko izatea, biktimei laneratzeko laguntzeko. • Lanbide ofizinak dauden udalerrietan: lan munduan sartzeko ibilbideak bermatzea, formazio egokia, diru- laguntzak etb. Indarkeria biktimen lanbide tutoreekin harreman jarraia.
JUDIZIAL	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi judizialek dagozkien eskubide guztien berri ematea emakumeei. • Prozesu judizialak dirauen bitartean emakumeei laguntzea eta babesa ematea. • Emakumeen eskubideak errespetatzen ez dituzten arauak aldatzeko iniziatibak bultzatu eta lagundu.

SEXU-DELITUEN	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza sanitarioa eta psikologikoa espezializatua eskuratzen laguntzea.
BIKTIMEKIN EGIN	<ul style="list-style-type: none"> • Dauden aukerei eta jarduteko moduari buruzko aholkularitza juridikoa eskuratzen laguntzea.
BEHARREKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Krisi-zentroak ezartzea, udal-mailakoak edo mankomunatuak. • Biktimentzako arreta-protokoloak idaztea.
ADIN TXIKIKO	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria matxista eta/edo abusu sexualen prebentzio eta antzemate sistema goiztiar eraginkorra ezartzea.
BIKTIMEKIN EGIN	
BEHARREKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Adingabeen arteko abusu sexualen prebentzio programak antolatzea, hezkuntza zentroetan, gazte gunetan eta abar. • Adingabeko biktimentzako espazio fisiko zehatzak erakitzea, beraien beharrianetara egokituak osasun sistema, sozial eta polizialaren barruan. • Adingabeentzako egokitua den arreta psikologikoa eta sanitarioa eskuratzen laguntzea. • Ohiko etxebizitza utzi behar a duten adingabeek beren beharretara egokitutako harrera- edo ostatu-baliabideak eskuratuko dituztela tramitatzea. • Emakume biktimentzako tokiko arreta-protokoloetan adingabeak sartzea.
LAN ESPARRUAN	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko enpresek sexu-jazarpeneko protokoloak onar ditzaten sustatzea.
SEXUAL ETA/EDO	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimei beharrezko asistentzia profesionalaren sarrera erraztu (abokatutza, psikologikoa eta abar.)
SEXUAREN ARABERAKO	
JAZARPENAREN	<ul style="list-style-type: none"> • Sexuaren araberako diskriminazio eza sustatzea (ordainsariak, lanpostuz igotzeko aukera, formazioak eta abar)
BIKTIMEKIN	
EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Beraien oinarrizko beharrianak berehala artatzeko baliabideak eskaintzea.
MUTILAZIO	<ul style="list-style-type: none"> • Posibleak diren errepresalien aurrean babes poliziala erraztea.
GENITALAREN	<ul style="list-style-type: none"> • Asistentzia mediko eta psikologikorako sarbidea erraztea.
BIKTIMEKIN (EMG)	<ul style="list-style-type: none"> • Aholkularitza judizialerako sarbidea erraztea (biktima egoera lehenestea "egoera irregularrean" dagoen pertsonen aurrean) • Jatorrizko herrialdeetarako itzulera erraztea.
EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Prebentzioko entitate desberdinekin koordinazio protokoloak ezartzea.
SALEROSKETEN	<ul style="list-style-type: none"> • Asistentzia psikologikorako sarbidea erraztea
BIKTIMEKIN	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta medikoa eta zirujararako sarbidea erraztea
BIZIRIK ATERATAKO	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta psikologikorako sarbidea erraztea.
BESTE BIKTIMA	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta eta informazio juridikorako sarbidea erraztea.
BATZUEKIN EGIN	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimen eta bizirik ateratakoen senide eta hurbilekoentzako laguntza-taldeak sor daitezen sustatzea.
BEHARREKOAK	

/ Udalen jardunbide egokiak



Basauriko udala / Indarkeria matxistaren kontrako tokiko plana.

	<p>HELBURUA Herritarrek indarkeria matxistaren aurkako borrokan inplikatzeko lortzea da eta, 0 tolerantzia jarrera sustatzea.</p>
	<p>PRINTZIOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Salaketa publikoa: ezinbestekoa da eraso eta erailketa matxistak salatzea, eta horien aurrean “0 tolerantzia” jarrera agertzea. • Memoria: indarkeria matxistaren biktimak ahanzturan erori ohi dira, ez ohi dute dagokien aitortza lortzen. Gauzak horrela, justizia sozialak eskatzen du indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen memoria kolektiboa, eta eraildakoen memoria historikoa berreskuratzeko. • Suspertzea: indarkeria matxista pairatu duten, edo pairatzen ari diren emakumeen prozesu pertsonalak piztean datza, beren bizi-proiektuak berreraiki ditzaten.
	<p>KONTAKTUA igualdad@basauri.eus 946 124 107</p>

Indarrean dauden protokoloetan erreparazio-printzipioa txertatzea:

Durungaldean emakumeen kontrako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko II. Protokoloa

	HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Erreparaziorako eskubidearen esparrua indarrean dagoen protokoloan sartzea.• Protokoloa sinatu duten erakundeetako teknikari guztientzat lan-saioak egitea.• Politikariei erreparazioaren arloko ekintza zehatz batzuk aurkeztea, hurrengo protokoloei gehi dakizkien.
	LAN-METODOLOGIA	<ul style="list-style-type: none">• Hainbat erakundetako ordezkariak Durango, Elorrio, Berriz eta Abadiño udalak, Osakidetza, Ertzaintza eta Mankomunitatea elkarlanean aritzea eta ikuspegi globala eskaintzea.• Estamentu politikoak onartu egin zituen lan-mahaiek ezarri zituzten eta Protokoloaren eranskina osatzen duten neurriak/ekintzak.
	KONTAKTUA	berdintasuna@durango.eus 946 03 00 42

Vitoria-Gasteizko udala / Genero berdintasunerako IV. Plana.

	HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gai honi dagokionez, erakundearen barruko eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. • Indarkeria matxistaren biktimak aitortzea eta beren erreparazioari laguntzea.
	ILDO	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasuna udal-gobernuaren eremuan.
	ESTRATEGIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zaintzen ekonomia feminista. • Ahalduntze feminista. • Indarkeria matxistatik gabeko hiria.
	CONTACTO	igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org 945 16 13 45

Andoaingo udala / Indarkeria matxistatik bizirik ateratakoen eta biktimen artatzerako eta erantzun publikorako akordio politikoa.

	ERANTZUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimei zuzendutako lehenasunezko arreta
	ERAIKITZEKO	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzun bizkor, koordinatu eta eraginkorra
	OINARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Erasotzaileak arbuiatzea • Informazio konfiantzazkoa • Informazio konfidentziala • Prebentziozko jarduera
	ERANTZUNAREN	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzun sendoa
	EZAUGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Errespetuzko erantzuna • Inpunitatea gelditzea • Berbiktimizazioa saihestea
	KONTAKTUA	berdintasuna@andoain.eus 943 30 08 30

Urdulizko udala / Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko udal ordenantza.

	<p>HAUTEMANDAKO BEHARRAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Istanbulleko Hitzarmenak udal-eskumenei dagokienez ezarritako gidalerroak txertatzea. • Emakumeekin esku hartzen dutenek koordinatuta lan egitea. • Emakumeen elkarteek eta erakunde feministek gai honetan duten eginkizuna ulertzea. <p>Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako Zerbitzu propioa eta alkatetzaren menpekoea sortzea, zeinaren xedea izango baita emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea ordenantzaren lurralde-eremuan</p>
--	--

	<p>LAN-ILDO NAGUSIAK</p> <p>Prebentzioa eta sentsibilizazioa: Hauek bultzatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakume biktimak ahalduntzeko prozesu kolektiboak. • Herritarren mobilizazioa, indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurkako taldeko gaitzespena agerraraz dezaten jendaurrean. • Ikastetxeetako prebentzio-programak. • Jendaurreko ekintzak indarkeria sexistako kasuetan, udalerriko emakumeen elkarteekin eta talde feministen laguntzarekin. <p>Arreta osoa eta koordinatua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Barne-koordinazioko nahiz esku hartzen duten eragileen arteko koordinazioko mekanismoen hobekuntza edota sorrera bermatzeko betebeharra.
--	--

	<p>KONTAKTUA berdintasuna@uribekosta.org 946 57 92 82</p>
--	--

8/Lanako fitxa



Ficha 1

Udalen jardueretan erreparazio-printzipioaren aplikazioa diagnostikatzeko fitxa

PRINTZIPIOAK	ALDERDIAK	BAI	EZ
LEHENERATZEA	• Ba al dago indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko udal-protokolorik?		
	• Bermatzen al da biktimen mugimendu-askatasuna?		
	• Bermatuta al dago giza eskubideez baliatzea?		
	• Egokia al da biktimen bizi-kalitatea?		
		Zer alderdiri dagokienez	
	• Hartzen al dira kontuan zeharkako biktima posibleak (senideak, hezkuntza-ingurunea, lan esparrua...)?		
		Zein?	
KALTE-ORDAINA	• Udal-aurrekontuetan ba al dago partidarik biktimei kalte-ordain ekonomikoa emateko?		
	• Ba al dago esparru hauetan aukerak galtzeagatik kalte-ordaina emateko protokolorik?		
	- Enplegua		
	- Hezkuntza		
	- Prestazio sozialak		
ERREHABILITAZIOA	• Hartzen al da kontuan biktimek beren beharrei buruz adierazten duten iritzia?		

1 Fitxa

Udalen jardueretan erreparazio-printzipioaren aplikazioa diagnostikatzeko fitxa

PRINTZIPIOAK	ALDERDIAK	BAI	EZ	
ERREHABILITAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimak zuzenean artatzen dituzten udalerriko langileek ba al dute zeregin horretarako prestakuntza espezifikoa? <ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzu medikoak - Gizarte-zerbitzuak - Udaltzaingoa 			
	<ul style="list-style-type: none"> • Bermatuta al dago biktimen intimitatea udal-zerbitzu eta udalez gaindiko erakunde guztietan? 			
	<ul style="list-style-type: none"> • Ba al daude era honetako arreta ematen duten udal-zerbitzuak? <ul style="list-style-type: none"> - Psikologikoa - Juridikoa 			
	<p>Foru-zerbitzuetara joz gero:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ba al dago biktimei esparru hauetan laguntzeko zerbitzurik? <ul style="list-style-type: none"> - Ekintza/Zerbitzu judizialak - Arreta psikologikoko zerbitzuak - Haurrekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak 			
	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerrian ba al dago indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten duen honelakorik <ul style="list-style-type: none"> - Ahalduntze eskola - Emakumeen elkarte - Bizirik ateratako emakumeen elkarte - Indarkeriaren biktimak diren emakumeekin lan egiten duena? 			
	<p>Halako elkarterik egonez gero:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ba al dago koordinaziorik haien eta hauen artean? <ul style="list-style-type: none"> - Udala - Zerbitzu medikoak - Gizarte zerbitzuak - Udaltzaingoa - Ertzaintza 			

PRINTZIOAK	ALDERDIAK	BAI	EZ
ERREHABILITAZIOA	• Jasotzen al dute udalaren diru-laguntza edo bestelako laguntzarik?		
	• Hartzen al da kontuan aniztasunaren faktorea?		
	- Kulturala		
	- Funtzionala - Sexuala - Generokoa		
GOGOBEETZEA	• Udallerriak gauzaten al ditu edo gauzatu al ditu gizarte erreparazioa sustatzeko ekintzak (adibidez, omenaldiak, ekitaldiak, etab.)?	Zein?	
	Adierazpen ofizialetan:		
	• Biktimak ez errudunesteko moduan tratatzen al da informazioa?		
	• Bere nahi/ intimitate eskubidea bermatzen duen informazioaren tratamendua egiten da? • Ba al dago egia aurkitzeko asmorik?		
BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEA	• Ba al dago esku-hartze zuzeneko profesionalen eta politikarien arteko koordinazioa bermatzen duen protokolorik?	Zer profesionalen artean?	
	• Udalak berariak baztertzen al du era guztietako indarkeria matxista?	Zein?	
	• Programatzen al dira herritarrek indarkeria matxistaren arloan sentsibilizatzeko/prestatzeko ekintzak?	Zer maiztasun-ekin?	

2 Fitxa

Udalen jardueretan erreparazio-printzipioaren aplikazioa bermatuko duten ekintza posibleak ezartzeko fitxa

PRINTZPIOAK	DIAGNOSTIKOKO ERREFERENTZIAKO ALDERDIA	EKINTZAK
LEHENERATZEA		1/
		2/
		...
KALTE-ORDAINA		1/
		2/
		...
ERREHABILITAZIOA		1/
		2/
		...
GOGO BETETZEA		1/
		2/
		...
BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEA		1/
		2/
		...

2 Fitxa

ARLOA/ARDURADUNA	HAUEKIN KOORDINATUTA	PRINTZIPIOAK
		LEHENERATZEA
		KALTE-ORDAINA
		ERREHABILITAZIOA
		GOGOBEETZEA
		BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEA

